2.– Para facilitar el acceso de los miembros de la Junta a la documentación e información necesaria para el ejercicio de sus funciones, el decano/a remitirá a cada uno de ellos junto el orden del día la documentación relativa a los puntos contenidos en el mismo, respetando los plazos establecidos en el artículo 14.2 del presente reglamento.

Además de su exposición en los paneles correspondientes, se utilizarán todos los medios técnicos disponibles para la difusión de la convocatoria y de la información así como los acuerdos adoptados por la Junta a todos los miembros de la Facultad.

*17. artikulua.*– Fakultateko Batzarra eratzea.

1.– Kide anitzeko organoak balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat gutxienez, bigarren deialdian. Lehen eta bigarren deialdiaren artean 30 minutuko tartea egotea beharrezkoa izango da. Edonola ere, organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute edo, bestela, euren ordezkoek.

2.– Organoa bigarren deialdian eratzeko beharrezko quoruma bozketa guztietan da beharrezkoa.

3.– Batzarra eratzeko bilera horren ondoren, Batzarreko buruak kideei ziurtagiri bana emango die, eta batzarreko kide direla egiaztatuko da horren bidez.

4.– Ezin izango da beste kide batzuen esku utzi botoa.

*18. artikulua.*– Bileren nondik norakoak.

1.– Kide anitzeko organoko buruak bilera behar bezala antolatuko du eta, horretarako arrazoirik egonez gero, bertan behera utzi ahal izango du.

2.– Eztabaidak gai-zerrendari jarraiki egin behar dira. Dena dela, beharrezkoa izanez gero, kide anitzeko organoak bileraren ordena aldatzea erabaki dezake organoko buruak egindako proposamenari jarraituz.

3.– Organoko buruak, beharrezko ikusten badu, eztabaidaren denbora mugatu ahal izango du, bai eta gaiaren botazioa egin aurretik egon daitezkeen parte-hartzeen kopurua ere.

4.– Kide anitzeko organoetako kideek aktan agerrarazi ahal izango dute euren botoa eta horren azalpena. Azalpen hori idatziz eman beharko dute botazioa egitean. Unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto bereziak beti agerrarazi behar dira haiekin batera.

5.– Fakultateko edozein kide osoko bilkuretara eta Batzarreko batzordeen bileretara joan ahal izango da, baina hitza besterik ez dute izango, botorik ez.

6.– Kide anitzeko organoko buruak organoko kide ez diren pertsonak gonbidatu ahal izango ditu bileretara egoki deritzonean, aztergaietako punturen batekin zerikusia daukan iritzia edo informazioa eman diezaioten kide anitzeko organoari. Gonbidatuen izen-abizenak bilerako aktan jasoko dira, botoa emateko eskubidea izango ez duten arren.

*19. artikulua.*– Botazioa.

1.– Erabakiak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen artetik gehiengo soila behar izango da, Estatutuek, fakultatearen arautegiak edo gainerako lege-xedapenek beste gehiengoren bat eskatzen ez duten ka-

*Artículo 17.*– Constitución de la Junta de Facultad.

1.– El órgano colegiado quedará válidamente constituido en primera convocatoria, con la presencia de la mayoría absoluta de sus miembros y, en segunda convocatoria, con la presencia de al menos la tercera parte de sus miembros. El plazo entre la primera y segunda convocatoria será de 30 minutos. En todo caso, será necesaria la asistencia de la Presidencia del órgano y de la persona que ocupe la Secretaría o, en su caso, de las personas que les sustituyan.

2.– El quórum necesario para la constitución en segunda convocatoria habrá de mantenerse en toda votación.

3.– Tras esta sesión constituyente la presidencia de la Junta distribuirá entre sus miembros un certificado acreditativo de su condición de miembro de la misma.

4.– En ningún caso se admitirá la delegación de voto.

*Artículo 18.*– Desarrollo de la sesión.

1.– Corresponde a la Presidencia del órgano colegiado, asegurar un desarrollo ordenado de la sesión, que podrá suspender en cualquier momento por causa justificada.

2.– Los debates se ajustarán al orden del día. No obstante, podrá ser alterada la secuencia por acuerdo del órgano colegiado cuando así lo aconsejen las circunstancias y a propuesta de quien presida la sesión.

3.– La Presidencia del órgano podrá limitar, si las circunstancias así lo aconsejan, el tiempo total del debate o el número de intervenciones sobre un tema antes de pasar a las correspondientes votaciones.

4.– Los miembros del órgano colegiado podrán hacer constar en el acta su voto particular y los motivos que lo justifican, entregándolo por escrito en el momento de la votación. Cuando se trate de propuestas realizadas a otros órganos de la Universidad, los votos particulares de sus miembros se harán constar siempre conjuntamente con aquéllas.

5.– Cualquier miembro de la Facultad podrá asistir tanto a las sesiones plenarias como a las comisiones de la Junta con derecho a voz pero sin derecho a voto.

6.– La presidencia del órgano colegiado podrá invitar a sus reuniones a personas que no sean miembros del mismo cuando lo estime oportuno, con el objeto de que aporten opiniones o informaciones de interés para el órgano colegiado en asuntos relacionados con algún punto del orden del día. Se hará constar en el acta de la reunión la asistencia de invitados, quienes en ningún caso tendrán derecho a voto.

*Artículo 19.*– Votación.

1.– Los acuerdos habrán de adoptarse por mayoría simple de votos válidamente emitidos, excepto en los supuestos en los que los Estatutos, el propio Reglamento de la Facultad u otras disposiciones legales o regla-

suetan izan ezik. Horrenbestez, proposamen bakarra izanez gero, onartu egingo da aldeko botoak kontrakoak baino gehiago badira. Bi proposamen badaude, aldeko boto gehien lortzen dituena onartuko da. Proposamenak bi baino gehiago direnean, emandako botoen gehiengoa lortzen duena onartuko da; edo, lehenengo botazioan boto gehien lortu dituzten bi proposamenak hartuta, bigarren botazioan boto gehien lortzen dituena.

Berdinketa izanez gero, berriro egin behar da botazioa; orduan ere berdinketa izanez gero, organoko buruak kalitatezko botoa izango du.

2.– Botazioa isilpekoa izango da kide anitzeko organoko kideren batek eskatzen duenean. Dena dela, botazioa beti izango da isilpekoa pertsonei buruzkoa denean.

3.– Aurkako botoa eman edo abstentzioa aurkezten dutenek eta horretarako arrazoia azaldu, ez dute erantzukizunik izango kide anitzeko organoak hartutako erabakietan. Botazioa isilpekoa denean, interesdunak botoaren edo abstentzioaren arrazoia azaltzen duen testua eman behar dio organoko idazkariari, boto-txartelarekin batera. Boto-txartelak eta testuak aktari erantsi behar zaizkio.

*20. artikulua.–* Bileretako aktak.

1.– Idazkariak bilerako akta egin behar du. Akta bileran bertan edo hurrengoan onartu behar da, eta aktaren zirriborroa hurrengo bilerako gai-zerrendari dagozkion dokumentuekin batera banatuko da. Akta onartu ostean, idazkariak sinatu eta organoko buruak ontzat eman behar du.

2.– Aktan honako hauek jasoko dira nahitaez: bilerara etorri direnen eta etorri ez direnen zerrenda; aztergaien zerrenda; bileraren tokia eta eguna; bileran aztertutako puntuak; botazioak (nola egin diren) eta emaitzak; hartutako erabakien edukia eta, egokitzat ikusiz gero, arrazoiaren azalpen laburra.

3.– Aktan boto partikularrak ere jasoko dira, kide anitzeko organoko kideek hala eskatzen badute. Kide anitzeko organoko kideek euren parte-hartzea edo proposamena aktetan hitzez hitz jasotzeko eska dezakete. Horretarako, idatziz aurkeztu behar dute testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako epean.

4.– Kide anitzeko organoko kideek aktan aldaketak egiteko proposamenak egin ahal izango dituzte akta onartzeko unean. Idazkariak egiaztatu egin behar ditu proposatutako aldaketak eta, gehiengoak aldeko botoa ematen badu, onartu egin behar dira.

5.– Kide anitzeko organoa aldatu baino lehen, bilera egin behar da onartzeke dauden akta guztiak onartzeko. Bilera hori egitea ezinezkoa bada, akten zirriborroak bidali behar zaizkie kide anitzeko organoko kide zirenei, eta hamar eguneko epea eman edukiari buruz-

mentarias exijan una mayoría diferente. En consecuencia, en caso de que existiera una única propuesta, ésta quedará aprobada si cuenta con más votos afirmativos que negativos. Si hubiera dos propuestas, se aprobará la que más votos obtenga. Habiendo más de dos propuestas, quedará aprobada aquella que obtenga la mayoría de los votos emitidos, o en segunda votación, la que obtenga más votos de entre las dos más votadas en la primera votación.

En caso de votaciones con resultado de empate, se efectuará una nueva votación y si persistiera el empate, la Presidencia del órgano podrá ejercer el voto de calidad.

2.– La votación será secreta, siempre que lo solicite algún miembro del órgano colegiado y, en todo caso, cuando afecte a personas.

3.– Quienes voten en contra o se abstengan y hagan constar su motivada oposición o abstención, quedarán exentos de la responsabilidad que, en su caso, pueda derivarse de los acuerdos del órgano colegiado. A tal efecto, cuando la votación sea secreta el interesado/a, en el mismo acto de la votación deberá entregar su papeleta a la Secretaría del órgano, junto con le texto explicativo de su motivada oposición o abstención, que quedará adjuntados al acta.

*Artículo 20.–* Del acta de la sesión.

1.– La Secretaría levantará acta de la sesión. Las actas se deberán aprobar en la misma o siguiente sesión y los borradores de las mismas se adjuntarán a la documentación que acompaña el orden del día de aquélla. Una vez aprobadas serán firmadas por la Secretaría con el Visto Bueno de la Presidencia.

2.– El acta incluirá necesariamente la relación de miembros asistentes y ausentes, el orden del día, el lugar y la hora en la que se ha celebrado la sesión, los puntos tratados, forma y resultado de la votación y el contenido de los acuerdos adoptados, en su caso, con una sucinta motivación.

3.– En el acta figurará, a solicitud de los miembros del órgano colegiado interesado, los votos particulares formulados. Cualquier miembro del órgano colegiado puede solicitar la trascripción íntegra de su intervención o propuesta siempre que la aporte por escrito de forma inmediata o, en su caso, en el término que determine la Presidencia del órgano.

4.– Los miembros del órgano colegiado podrán proponer modificaciones al acta en el momento en que sea sometida a su aprobación. La Secretaría contrastará la propuesta de modificación que será aprobada con el voto favorable de la mayoría.

5.– Previa a la renovación del órgano colegiado se deberá convocar una sesión para la aprobación de las actas pendientes. En caso de que dicha convocatoria o sesión no hubiera sido posible, se remitirá el borrador de éstas a quienes eran miembros del órgano colegiado, que

ko erreklamazioak egiteko. Ez bada aurkezten erreklamaziorik esandako epearen barruan, aktak onartutzat emango dira; Erreklamaziorik aurkeztu gero, kide anitzeko organo aldatuak egingo duen lehen bileran onartu beharko dira aktak.

6.– Aktak, behin onartuta, arautegi honen 14.4 artikuluan adierazitako tokietan emango dira argitara, pertsonen intimitatea babestuta, eta ikastegiko kideek Idazkaritza Akademikoan eskuratu ahal izango dituzte kontsultetarako.

*21. artikulua.–* Erabakiak argitaratzea.

1.– Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako erabakien fede eman behar du eta ziurtagiriak egin behar ditu.

2.– Hartutako erabakiak, gehien ere hiru egun baliodunek o epean argitara emango dira, eta pertsonen intimitatea babestuta. Nolanahi ere, ziurtatu beharko da hartutako erabakiak argitara ematen direla eta gutxienez hilabete egongo direla argitaratuta jendaurrean. Izan ere, epe horren barruan errektoreari kasuan kasuko errekurtsoa aurkezteko aukera egongo da.

3.– Aipatutakoaz gain, pertsonei buruzko erabakiak jakinarazi egin beharko zaizkie interesatuei. Erabakiek jakinarazpena egiten den unetik aurrera dute eragina, eta jakinarazpenak Administrazio Prozeduraren Legean xedatutako moduan egin behar dira.

*22. artikulua.–* Erabakiak betearaztea eta errekurtsoak jartzea administrazio-bidean.

1.– Kide anitzeko organoak hartutako erabakiek onartzen direnetik aurrera dute eragina, erabakian bertan kontrakorik adierazi ezean. Erabakiak publikoak dira eta unibertsitateko kasuan kasuko organoak jakinaren gainean jarriko dira.

2.– Fakultateko Batzarrak eta gainerako kide anitzeko organoek hartzen dituzten erabakien kontra gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari, hilabeteko epean.

III. KAPITULUA
KIDE BAKARREKO ORGANOAK

*23. artikulua.–* Dekanoa.

1.– Dekanoa fakultateko gobernu, ordezkaritza eta administrazioko kide bakarreko organoa da.

2.– Dekanoa fakultateari atxikitako unibertsitateko irakasleen kidegoetako arduraldi osoko irakasle doktoreen artetik eta indarreko legeriak onartzen dituen beste pertsona batzuen artetik hautatuko da.

3.– Dekanoa sufragio unibertsal haztatuaren bidez aukeratuko da, hauteskunde orokorrei buruzko arautegiak dioenari jarraiki.

dispondrán de un plazo de diez días para hacer reclamaciones sobre su contenido. En el caso en que no se produzcan reclamaciones sobre su contenido transcurrido dicho plazo, se considerarán aprobadas; en caso contrario se someterán a su aprobación en la siguiente sesión del órgano renovado.

6.– Una vez aprobadas las actas se harán públicas en los lugares señalados en el artículo 14.4 del presente reglamento, para consulta general, salvaguardando la intimidad de las personas, quedando a disposición de los miembros del centro en la Secretaría Académica.

*Artículo 21.–* Publicidad de los acuerdos.

1.– La Secretaría dará fe de los acuerdos adoptados por el órgano colegiado y librará las correspondientes certificaciones.

2.– En un plazo máximo de tres días hábiles, salvaguardando debidamente la intimidad de las personas., los acuerdos adoptados serán hechos públicos. En todo caso se garantizará la efectividad y permanencia de la publicidad de los acuerdos adoptados como mínimo un mes desde su publicación, tiempo durante el cual correrá el plazo a los efectos de interponer el correspondiente recurso ante el Rectorado.

3.– Con independencia de lo anterior, los acuerdos nominativos habrán de notificarse a las personas a las que afecten directamente. El acuerdo será efectivo desde el momento en que se produzca la citada notificación en los términos establecidos por la Ley de Procedimiento Administrativo.

*Artículo 22.–* Ejecutabilidad y recurso en vía administrativa.

1.– Los acuerdos adoptados por el órgano colegiado serán efectivos desde su aprobación, si en los mismos no se hubiera dispuesto otra cosa. Los acuerdos son públicos y se dará traslado de ellos a los órganos de la Universidad que corresponda.

2.– Contra los acuerdos de la Junta de Facultad y demás órganos colegiados, es posible interponer el correspondiente recurso de alzada en el plazo de un mes ante el Rector.

CAPÍTULO III
DE LOS ÓRGANOS UNIPERSONALES

*Artículo 23.–* El Decano/a.

1.– El Decano/a es el órgano unipersonal de gobierno, representación y administración de la Facultad.

2.– El Decano/a será elegido de entre el profesorado doctor con dedicación completa perteneciente a los cuerpos docentes universitarios adscritos a la Facultad y cualquier otra figura que permita la legislación vigente.

3.– El Decano/a será elegido por sufragio universal ponderado conforme a lo dispuesto en el reglamento de régimen electoral general.

4.– Dekanoa errektoreak izendatu behar du, eta izendatu ondoren hasiko da bere eginkizunak betetzen. Agintaldia lau urtekoa izango da Dekanoak behin baino ezin izango du bere burua berrautaketara aurkeztu segidan.

5.– Fakultateko edozein kidek kexak, erreklamazioak eta iradokizunak dekanoari idatziz helaraziko dizkio. Eskabidea ikastegiko idazkaritza nagusian aurkeztu beharko du eta eskabideari behar bezala erantzungo zaio astebeteko epean gehienez.

23.1.– Kargua uztea.

1.– Dekanoek arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

a) hilez gero.

b) legezko ezintasuna izanez gero.

c) dimisioa aurkeztuz gero.

d) ikastegiko kide izateari utziz gero.

e) agintaldia amaituz gero.

f) Ikastegiko Batzarrak zentsura-mozioa onartuz gero. Zentsura-mozioaren arrazoia azaltzen duen idazkia aurkeztuko da Fakultateko Idazkaritzan. Batzarreko kide hautatuen % 51k, gutxienez, sinatu behar du mozioa. Zentsura-mozioa aurkeztu eta baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, dekanoak Fakultateko Batzarrari bilera baterako deia egingo dio hurrengo 72 orduetan. Bilera zentsura-mozioa aurkezten denetik hasita, gehienez ere, hamabost eguneko epean egingo da. Eztabaidan lehenik eta behin, zentsura-mozioa sinatu duten Fakultateko Batzarreko kideetako batek defendatuko du. Zentsura jaso duenak erantzuteko eskubidea izango du eta ondoren, Fakultateko Batzarreko kideek hitz egingo dute, hala nahi izanez gero. Aldeko eta aurkako txandak egongo dira. Zentsura onartzeko Fakultateko Batzarreko kideen aldeko boto gehiago egon behar dira aurkakoak baino. Fakultateko Batzarrak mozioa onartuz gero, dekanoak dimisioa beherala aurkeztu eta hauteskundeetarako deia egingo du.

2.– Ahal den kasuetan, dekanoak jardunean jarraituko du dekano berria izendatu arte.

3.– Dekanoa gaixorik edo kanpoan balego, izendapenean beren-beregi zehaztutako dekanordeak egingo lioke ordezkoa. Halako izendapenik ez balego, Fakultateko Batzarrak izendatuko du ordezkoa egingo duen dekanotza taldeko kidea. Fakultateko Batzarreko burua, kasu honetan, antzinatasun handieneko kidea izango da. Sei hilabete baino gehiago emango balitu gaixorik edo kanpoan, jarduneko dekanoak hauteskundeetarako deia egingo luke hilabeteko epean.

4.– Ikastegian pertsona bakarreko organo bat ere ez balego, kategoria eta antzinatasun handiena daukan ikastegiko arduraldi osoko irakasleak hartuko lituzke bere gain dekanoaren zereginak. Irakasle horrek ikas-

4.– El Decano/a, comienza a ejercer sus funciones con el nombramiento por el Rector. La duración del mandato será de cuatro años. No podrá presentarse consecutivamente a la reelección más que una sola vez.

5.– Cualquier miembro de la Facultad podrá plantear sugerencias, quejas y reclamaciones a través de una instancia dirigida al Decano/a que será entregada en la secretaría general del centro y a la que se dará cumplida respuesta en el plazo no superior a una semana.

23.1.– Cese.

1.– Los Decano/as, cesan por las siguientes causas:

a) Fallecimiento.

b) Incapacidad legal.

c) Dimisión.

d) Dejar de pertenecer al Centro.

e) Extinción de su mandato.

f) Aprobación de una moción de censura por la Junta de Centro. La moción de censura se presentará por escrito motivado en la Secretaría de la Facultad con la firma de, al menos el 51% de los miembros electos de la Junta. Una vez presentada la moción de censura y comprobado que reúne los requisitos exigidos, el Decano/a convocará la Junta de Facultad en el plazo de 72 horas, que se celebrará en el plazo máximo de quince días desde la presentación de la moción de censura. El debate se iniciará con la defensa de la moción de censura realizada por uno de los miembros de la Junta de Facultad firmantes. Réplica del Censurado y seguidamente intervendrán los miembros de la Junta de Facultad que soliciten la palabra, en turnos a favor y en contra. La censura quedará aprobada cuando voten en su favor mayor número de miembros de la Junta de Facultad que el de los que lo hagan en contra. Si la Junta de Facultad aprueba la moción, el Decano/a e inmediatamente presentará su dimisión y convocará elecciones.

2.– Cuando ello resulte posible, el Decano/a, continuará en sus funciones hasta el nombramiento del nuevo Decano/a.

3.– En caso de ausencia o enfermedad, sustituirá al Decano/a, la persona que ostente el Vicedecanato designado expresamente en el nombramiento. En ausencia de lo anterior, la Junta de Facultad, presidida por su miembro más antiguo, designará a la persona integrante del equipo decanal que asumirá la sustitución. Si la enfermedad o ausencia se prolongara por más de seis meses, la persona que venga actuando como Decano/a, en funciones convocará nuevas elecciones en el plazo de un mes.

4.– En el supuesto de inexistencia de todos los órganos unipersonales del Centro docente, asumirá las funciones del Decano/a el profesor o profesora de mayor categoría y antigüedad del Centro con dedicación

tegiko dekanoa aukeratzeko deia egin beharko luke gehienez ere sei hilabeteko epearen barruan.

23.2.– Irakaslanetik salbuestea.

1.– Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango du dekanoa, neurri batean edo erabat.

2.– Agintaldia amaituta, eskubidea izango dute irakaslanetik beste urtebetez salbuetsita egoteko, irakaskuntzaren eta ikerketaren arloko gaiak eguneratzeko. Horretarako, gutxienez hiru urte izan beharko dituzte emanda karguan.

23.3.– Dekanoaren eginkizunak.

1.– Hauek dira dekanoaren eginkizunak:

a) Fakultateko ordezkaria izatea eta ikastegiari atxikitako langile guztien zuzendaritza funtzionala izatea.

b) Fakultatearen jarduera guztiak gidatu, koordinatu eta gainbegiratzea.

c) Fakultateko kide anitzeko organoetako buru izatea.

d) Fakultateko Batzarraren, gobernu-organo orokorren eta campus bakoitzeko organoen jarraibideak aplikatzea eta haien erabakiak betetzea.

e) Errektoreari bere eskumeneko izendapenak proposatzea.

f) Fakultateko Batzarrari urteko memoria eta plana aurkeztea.

g) Dagozkion zerbitzu teknikoekin koordinaturik, fakultateko leku guztien higiene eta segurtasuna bermatzea, eta horretarako behar diren neurriak hartzea.

h) Fakultateko kideen eskari eta proposamenak bideratzea.

i) Fakultatearen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza bultzatzea.

j) Fakultateari eragiten dioten arauak betetzen direla zaintzea, bereziki zerbitzuen funtzionamendu egokiari dagozkionak eta diziplina akademikoarekin zerikusia daukatenak, UPV/EHUren Estatutuetako 102.2. eta 103.2. artikuluetan adierazitako moduan.

k) Tokiak esleitzea ikastegian diharduten sail, institutu eta zerbitzuei, Fakultateko Batzarrak onartuko dituen irizpideez bat. Era berean, fakultateko azpiegitura erabiltzean lehentasunak zeintzuk diren erabakiko du.

l) Lankidetza- eta koordinazio-programak adostea sailekin irakaskuntza eta ikerketa jardueretarako, eta sailen arteko eta arloen arteko ikerlanak bultzatzea.

completa, quien habrá de convocar elecciones al Decanato en el término máximo de seis meses.

23.2. Exención de sus obligaciones docentes.

1.– El Decano/a, podrá ser eximidos de sus obligaciones docentes total o parcialmente por el Rector.

2.– Finalizado su mandato, tendrán derecho a mantener la misma reducción de sus obligaciones docentes durante un período adicional de un año para su actualización docente e investigadora, siempre que hayan permanecido en el cargo correspondiente durante un período igual o superior a tres años.

23.3. Funciones del Decano/a.

1.– Son funciones del Decanato:

a) Ostentar la representación de la Facultad y la dirección funcional de todo el personal adscrito al mismo.

b) Dirigir, coordinar y supervisar todas las actividades de la Facultad.

c) Presidir los órganos colegiados de la Facultad.

d) Aplicar las directrices y ejecutar los acuerdos de la Junta de Facultad y de los órganos de gobierno generales y del Campus respectivo.

e) Proponer al Rector los nombramientos de su competencia.

f) Presentar a la Junta de Facultad la Memoria y el Plan anuales.

g) Velar, en coordinación con los servicios técnicos competentes, por las condiciones de higiene y seguridad de las distintas dependencias de la Facultad, proponiendo, en su caso, la adopción de las medidas oportunas.

h) Dirigir y canalizar las peticiones y sugerencias de los miembros de la Comunidad Universitaria de la Facultad.

i) Impulsar la evaluación y la mejora continua de la Facultad.

j) Velar por el cumplimiento de las normas que afectan a la Facultad y, especialmente, de las relativas al buen funcionamiento de los servicios y al mantenimiento de la disciplina académica en los términos recogidos en los artículos 102.2 y 103.2 de los Estatutos de la UPV/EHU.

k) La asignación de espacios globales a los Departamentos, Institutos y servicios que tengan actividad en el mismo, según los criterios aprobados en su caso por la Junta de Facultad. Así mismo, decidirá la prioridad en el uso de las infraestructuras de la Facultad.

l) Establecer programas de colaboración y coordinación con los Departamentos en actividades docentes e investigadoras, fomentando la realización de investigaciones interdepartamentales e interdisciplinarias.

m) Gainerako gobernu-organoek eskuordetzan ematen dizkioten eginkizunak, edo unibertsitateari buruzko legeriak, Estatutuek edo beroriek garatzen dituzten arauek esleitzen dizkiotenak eta beren-beregi beste organo batzuei esleituta egon barik, ikastegiarekin zerikusia daukatenak.

2.– Era berean, dekanoak lankidetza-hitzarmenak sinatuko ditu, Gobernu Kontseiluak emandako jarraibideei eutsiz.

*24. artikulua.–* Dekanotza taldea.

1.– Dekanotza taldeko burua dekanoa izango da eta honako hauek osatuko dute: dekanordeak, eta idazkari akademikoa.

2.– Ikastegietako dekanotza taldeek laguntza eman behar diote dekanoari bere zereginetan, batez ere honako hauetan:

– Titulazioetan irakasten diren gaien irakaskuntza koordinatzeko lanean;

– Ikasketa-planak eguneratzeko zereginean, modu horretara gizartearen premiei hobeto erantzun ahal izateko;

– Ikasleen laneratzea bultzatzeko eginkizunean;

– Ikasleek kanpoan egiten dituzten praktikak gainbegiratzeko zereginean, bai eta beste unibertsitate batzuetako pareko titulazioetako ikasleekin egiten diren trukeak ere, esparru akademikoari dagokionez;

– Irakats plangintza behar bezala gauzatzen dela zaintzeko zereginean, bai eta titulazioetako irakaslanean gertatutako gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko gestio-lanean ere;

– Titulazioen irakaskuntzaren kalitatea sustatzeko lanean;

– Ikastegiko jarduera guztietan etengabeko hobekuntza bultzatzeko lanean.

*25. artikulua.–* Dekanordeak.

1.– Errektoreak, dekanoak proposatuta, dekanordeak izendatuko ditu behar diren baldintzak betetzen dituzten ikastegiko arduraldi osoko irakasleen artetik.

2.– Dekanordeek dekanoak eskuordetzen dizkien eginkizunak beteko dituzte, eta euren izendapenean zehazten diren arloen zuzendaritza hartuko dute. Eskuordetze horien berri emango zaio Fakultateko Batzarrari eta, horrez gain, argitara emango dira.

3.– Dekanordeen kopurua ez da izango unibertsitateari buruzko indarreko legerian jasotako irizpideak aplikatuta ateratzen den kopurua baino handiagoa.

4.– Honakoak izango dira kargua uzteko arrazoi: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, fakultateko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, dekanoak proposatuta.

m) Cuantas funciones le deleguen los demás órganos de gobierno o le sean atribuidas por la legislación universitaria, los Estatutos o sus normas de desarrollo, y aquellas referidas al Centro que no hayan sido atribuidas expresamente a otros órganos.

2.– Corresponde, igualmente, al Decanato la suscripción de convenios de colaboración en los términos que se establezcan por el Consejo de Gobierno.

*Artículo 24.–* El Equipo Decanal.

1.– Los Equipos Decanales, serán presididos por el Decano/a, y estarán integrados por los Vicedecanos, Vicedecanas, y por el Secretario o Secretaria Académica.

2.– Corresponde a los Equipos decanales de cada Centro, colaborar y apoyar al Decano/a, en el desarrollo de sus funciones, en particular:

– Coordinar la enseñanza de las materias impartidas en las titulaciones;

– Actualizar de los planes de estudio para garantizar su adecuación a las necesidades sociales;

– Promover la orientación profesional del alumnado.

– Supervisar académicamente la realización de las prácticas externas y los intercambios de estudiantes con titulaciones equivalentes de otras universidades;

– Velar por la correcta ejecución de la planificación docente y gestionar la resolución de incidencias y reclamaciones en el desarrollo de la actividad docente de su titulación;

– Impulsar la calidad docente en sus titulaciones;

– Liderar la mejora continua en todas las actividades del Centro.

*Artículo 25.–* Los Vicedecanos/as.

1.– El Rector, a propuesta del Decano/a, nombrará Vicedecanos y Vicedecanas de entre el profesorado del Centro con dedicación completa que reúna los requisitos exigibles.

2.– Los Vicedecanos y Vicedecanas ejercerán las funciones que en ellos delegue el Decano/a, asumiendo la dirección de las áreas mencionadas en su nombramiento. Se informará a la Junta de Facultad de las mencionadas delegaciones, que se harán públicas.

3.– El número de Vicedecanatos no superará el resultante de la aplicación de los criterios establecidos por la legislación universitaria en vigor.

4.– Cesarán por dimisión, fallecimiento, incapacidad legal, por dejar de pertenecer a la Facultad y por resolución del Rectorado, a propuesta del Decano/a,

5.– Dekanoak dekanotza taldean gertatuko aldaketen berri emango du Fakultateko Batzarraren hurrengo bileran.

25.1.– Dekanordeek irakaslanean izan dezaketen salbuespen-maila.

1.– Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu fakultateko dekanordeak, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

2.– Agintaldia amaituta, eskubidea izango du irakaslanetik beste sei hilabetez salbuetsita egoteko, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren alorrean eguneratu ahal izateko. Horretarako, gutxienez hiru urte izan beharko ditu emanda karguan.

*26. artikulua.*– Idazkari akademikoa.

1.– Idazkari akademikoa errektoreak izendatuko du, dekanoak proposatuta. Idazkaria jardunean dagoen arduraldi osoko irakasle bat izango da.

2.– Honakoak izango dira kargua uzteko arrazoi: dimisioa, heriotza, ezintasun legala, UPV/EHUko kide izateari uztea edo errektoreak hala erabakitzea, dekanoak proposatuta.

26.1.– Eginkizunak.

Hauek dira fakultateko idazkari akademikoaren eginkizunak:

a) Idazkari moduan aritzea Fakultateko Batzarrean, Batzorde Iraunkorrean eta, betetzen duen karguagatik, dagokion gainerako batzordeetan; eta organo horien bileretako aktak idatzi eta zaintzea.

b) Fakultateko Batzarrerako eta Batzorde Iraunkorrerako deia egitea, dekanoaren agindua jaso ondoren.

c) Fakultateko gobernu, ordezkaritza eta administrazioko kide anitzeko organoen ekintza eta erabakien fede ematea eta egiaztagiriak egitea, hala erabakienak nola bere aurrean gertatzen diren ekintza eta jazoera guztienak edo fakultateko dokumentazio ofizialean jasota daudenenak.

d) Ikastegiko erregistro orokorraren funtzionamendua bermatzea, unibertsitateko Idazkaritza Nagusiak emandako arautegi eta irizpideei jarraiki.

e) Fakultateko Batzarrak eta Batzorde Iraunkorrak hartuko dituzten erabakien berri ematea unibertsitateko kasuan kasuko gobernu-organoari.

f) Oro har, laguntza ematea dekanoari; baita fakultateko idazkari akademikoari dagozkion gainerako eginkizunak betetzea ere.

26.2.– Idazkari akademikoak irakaslanean izan dezakeen salbuespen-maila.

1.– Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango du fakultateko idazkari akademikoa, gehienez ere arduraldiaren erdiraino.

5.– El Decano/a, informará de cualquier cambio en el equipo decanal en la siguiente sesión de la Junta de Facultad.

25.1.– Exención docente de los Vicedecanos/as.

1.– Los Vicedecanos, Vicedecanas, de Facultad podrán ser eximidos por el Rector de sus obligaciones docentes hasta un máximo de la mitad de su dedicación.

2.– Finalizado su mandato, tendrán derecho a mantener la misma reducción de sus obligaciones docentes durante un período adicional de seis meses para su actualización docente e investigadora, siempre que hayan permanecido en el cargo correspondiente durante un período igual o superior a tres años.

*Artículo 26.*– La Secretaría Académica.

1.– El Decano/a propondrá al Rector el nombramiento de la Secretaria o el Secretario académicos entre el profesorado en activo con dedicación a tiempo completo.

2.– Cesarán por dimisión, fallecimiento, incapacidad legal, por dejar de pertenecer a la UPV/EHU y por resolución del Rectorado, a propuesta del Decano/a.

26.1.– Funciones.

Corresponde a la Secretaría académica de la Facultad:

a) Asistir a las reuniones de la Junta de Facultad, de la Comisión permanente y a todas aquellas comisiones en las que, por razón de su cargo, deba ejercer la condición de secretario o secretaria, y redactar y custodiar las actas de las sesiones.

b) Convocar, por orden del Decanato, a la Junta de Facultad y, en su caso, a la Comisión permanente.

c) Dar fe de los actos y acuerdos de los órganos colegiados de gobierno, representación y administración de la Facultad y librar las certificaciones oportunas de los acuerdos y de cuantos actos o hechos presencie o consten en la documentación oficial de la Facultad.

d) Garantizar el funcionamiento del Registro General en el Centro, en el marco de la normativa y directrices de Secretaría General de la Universidad.

e) Comunicar al órgano de gobierno correspondiente de la Universidad los acuerdos de la Junta de Facultad y, en su caso, de la Comisión permanente.

f) Y, en general, apoyar al Decanato y cualquier otra función inherente a la Secretaría académica de la Facultad.

26.2.– Exención docente del Secretario/a académicos.

1.– El Secretario/a académico de la Facultad podrá ser eximidos por el Rectorado de sus obligaciones docentes hasta un máximo de la mitad de su dedicación.

2.– Agintaldia amaituta, eskubidea izango du irakaslanetik beste sei hilabetez salbuetsita egoteko, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren alorrean eguneratu ahal izateko. Horretarako, gutxienez hiru urte izan beharko ditu emanda karguan.

*27. artikulua.–* Fakultateko administratzailea.

1.– Fakultateko zerbitzu ekonomiko eta administratiboen burua administratzailea izango da.

2.– Administratzaileak menpekotasun funtzionala izango du dekanoarekiko eta fakultateko administrazio eta zerbitzuetako langileak zuzendu eta koordinatzeko lanak beteko ditu. Horrez gain, ikastegiko organoen erabakiak betearaziko ditu berari dagokion eremuan eta aipatutako zerbitzuen funtzionamenduaz arduratuko da.

3.– Ikastegiko administratzaileak eguneratuta izango du fakultateari atxikitako ondasunen zerrenda, eta zerrenda eguneratu hori urtero aurkeztuko dio Fakultateko Batzarrari, ontzat eman dezan. Ondoren unibertsitateko Gerentziara igorriko da. Era berean, laguntza teknikoa emango dio dekanotza taldeari fakultatearen urteko premien memoria prestatzeko lanean. Memoria hori ontzat eman beharko du Fakultateko Batzarrak.

IV. KAPITULUA
EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO ARAUBIDEA

*28. artikulua.–* Aurrekontuko hornidura.

Fakultateak, UPV/EHUk urtero zehazten duen aurrekontuko hornidura autonomiaz gestionatuko du baita bestelako partidak ere, bere helburuak betetzeko eta berezkoak dituen jarduerak aurrera eramateko. Bestelako partida horien jatorria honakoa izan daiteke:

a) Burutzen dituen zereginen etekin garbiak.

b) Jasotzen dituen diru laguntzak, kasuan kasuko diru laguntzarako zehaztuta dauden baldintzen arabera.

c) Modu agerian eta beren-beregi egiten dizkioten dohaintza eta legatuak, eman zaizkion baldintza berberetan.

d) Zientzia, teknika edo arte lanak egiteko edo espezializazio ikasketak emateko nahiz prestakuntzarako jarduera bereziak egiteko kontratuetatik sortutako diru sarreretatik dagokien zatia.

*29. artikulua.–* Gestio ekonomiko eta administratiboa.

1.– Fakultatearen jarduera ekonomikoa UPV/EHUren sarrera eta gastuen aurrekontu bakar, publiko eta orekatuan xedatutakoaren arabera eramango da aurrera, eta UPV/EHUko aurrekontuak betetzeko arauetan ezarritakoari jarraiki.

2.– Finalizado su mandato, tendrán derecho a mantener la misma reducción de sus obligaciones docentes durante un período adicional de seis meses para su actualización docente e investigadora, siempre que hayan permanecido en el cargo correspondiente durante un período igual o superior a tres años.

*Artículo 27.–* La Administración de la Facultad.

1.– A la cabeza de los servicios económico-administrativos de la Facultad habrá un Administrador o Administradora.

2.– Bajo la dependencia funcional del Decanato, el Administrador o Administradora ostentará la dirección y coordinación del personal de administración y servicios de la Facultad y ejecutará las decisiones de los órganos del mismo en materia de su competencia, asumiendo la responsabilidad del funcionamiento de los citados servicios.

3.– La Administración del Centro ha de mantener actualizado el inventario de bienes asignados a la Facultad y anualmente ha de presentar el inventario actualizado a la Junta de Facultad para su aprobación y remisión a la Gerencia de la Universidad. De la misma forma, apoyará técnicamente al Equipo decanal en la preparación de la memoria anual de necesidades de la Facultad, que deberá ser aprobada por la Junta de Facultad.

CAPÍTULO IV
RÉGIMEN ECONÓMICO Y ADMINISTRATIVO

*Artículo 28.–* Dotación presupuestaria.

La Facultad gestionará con autonomía, para el cumplimiento de sus fines y la realización de las actividades que le son propias, la dotación presupuestaria del Centro fijada anualmente por la UPV/EHU, así como las partidas que puedan provenir de:

a) Los rendimientos que correspondan por las actividades que desarrolle.

b) Las subvenciones que se le concedan, en los propios términos de su otorgamiento.

c) Las donaciones y legados de los que sea expresa y específicamente beneficiaria, en las mismas condiciones en que hayan sido otorgados.

d) La parte que le corresponda de los ingresos derivados de los contratos para la realización de trabajos de carácter científico, técnico o artístico, así como para el desarrollo de enseñanzas de especialización o actividades específicas de formación.

*Artículo 29.–* Gestión económico-administrativa.

1.– La actividad económica de la Facultad se desarrollará de acuerdo con lo que disponga al respecto el presupuesto de ingresos y gastos de la UPV/EHU, de carácter anual, público, único y equilibrado y de conformidad con las normas de ejecución existentes en la Universidad.

2.– Ikastegiak UPV/EHUren aurrekontu orokorrean agertzen ez diren bestelako baliabideak baditu, dekanotza taldeak jakinaren gainean jarriko du Gerentzia eta, ondoren, baliabide horiek fakultatearen aurrekontuko zati moduan gastatzeko proiektua aurkeztuko du Fakultateko Batzarrean, ontzat eman dezan.

## V. KAPITULUA
## ARAUTEGIA ALDATZEA

*30. artikulua.*– Arautegia aldatzeko prozedura.

Arautegia aldatzeko prozeduraren ekimena gauzatzeko, dekanoari idazki bat aurkeztu beharko zaio, proposaturiko hautabidezko testua eta nortzuek proposatzen duten bertan ageriz. Fakultateko Batzarreko kideen % 40k gutxienez aurkeztu beharko dute ekimen hori.

Ikastegiko Batzarrak horretarako beren-beregi deituko duen ezohiko bilera batean onartu beharko da proposatutako aldaketa, eta emandako botoen gehiengo absolutua lortu beharko du. Horren ondoren, eta legaltasun-kontrola behin eginda, Gobernu Kontseilura eramango da ontzat eman dezan.

## I. ERANSKINA

Psikologia Fakultatean irakasten diren titulazioak:

– Psikologian lizentziatua.

– Psikologiako masterra: gizabanakoa, taldea, antolamendua eta kultura.

2.– De contar con recursos propios adicionales a los recogidos en el presupuesto general de la UPV/EHU, informada la Gerencia, el Equipo decanal presentará a la Junta de Facultad, para su aprobación, el proyecto de integración y gasto de esos recursos en el marco del presupuesto de la Facultad.

## CAPÍTULO V
## DE LA REFORMA DEL REGLAMENTO

*Artículo 30.*– Procedimiento de reforma.

La iniciativa del proceso de reforma del presente Reglamento se ejercerá mediante presentación al Decano/a de un escrito que contendrá necesariamente la identificación de los solicitantes y el texto alternativo propuesto. Esta iniciativa deberá ser presentada por al menos un 40% de los miembros de la Junta de Facultad.

La reforma propuesta deberá ser aprobada, en una Junta extraordinaria convocada expresamente a tal efecto, por la mayoría absoluta de los votos emitidos, y será elevada al Consejo de Gobierno para su definitiva aprobación, tras el preceptivo control de legalidad.

## ANEXO I

Titulaciones que se imparten en la Facultad de Psicología:

– Licenciado en Psicología.

– Master en Psicología: individuo, grupo, organización y cultura.

## II. ERANSKINA / *ANEXO II*

Psikologia Fakultatearen anagrama:
*Anagrama de la Facultad de Psicología:*